

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2841

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 17koa, HABEko zuzendariarena, 2024-2025 ikasturtean euskara-ikasleei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak HABE erakundea eratu zuen (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea), helduen euskalduntzea gauzatzeko asmoz eta ahalik eta euskal hiztun gehien lortzeko helburuz.

Uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak helduen euskara-irakaskuntza burutzen duten euskaltegi zein beste zentro homologatuen finantzazioa arautu zuen.

179/2003 Dekretuaren 17. artikuluari jarraikiz, HABEk hainbat dirulaguntza ezar ditzake euskara-ikasleentzat, betiere emaitza akademikoen baitan, dekretu horretan araututako modalitate eta euskarrietan edo homologatutako sistemen bitartez eta HABEren aurrekontu mugen barruan.

Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaz aldatuak, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetza finkatu du eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitu ditu.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak euskararen komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautu du eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatu ditu.

Ildo horretatik, 2025eko Dirulaguntzen Urteko Plana onartzen duen eta 2025-2028 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzen duen 2025eko otsailaren 27ko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Aginduak Hizkuntza Politika alorreko helburu estrategikotzat Helduen ikaskuntza-egitasmoa sendotzea aurreikusten du, besteak beste euskara-ikasleei zuzendutako dirulaguntzak aurreikusiz.

Bestalde, XIII. Legegintzaldi honetako gobernu-programaren 43. konpromisoaren 1. ekimenean ondoko hau dago jasota: «Edozein pertsonari euskara doan ikasteko aukeraz eskaintzeko prozesuari ekitea, pixkanaka, maila guztietan, A1etik C2ra».

Ebazpen honen bitartez, HABEko zuzendariak 2024-2025 ikasturterako euskara-ikasleentzako dirulaguntzak emateko baldintzak eta jarraibideak zehaztu eta deialdia egiten du.

Aurreko xedapenak aintzat hartuta, HABEren arau organikoak onartu dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak (eta berau aldatu duen urriaren 22ko 166/2019 Dekretuak) emandako eskumenez baliatuz, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak araututakoari jarraikiz eta azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak (eta berau garatu duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak) xedatutakoa oinarri izanik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Euskara-ikasleei dirulaguntzak emateko deialdia egitea eta oinarriak onartzea, 2024-2025 ikasturtean HABEren euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatu dituzten neurrian, betiere ebazpen honen eranskinean ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.— Ebazpen honen aurka, bide administratiboa agortzen ez duenez, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik.

Donostia, 2025eko ekainaren 17a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

OINARRIAK

1. oinarria.— Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.— Ebazpen honen xedea da euskara-ikasleei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.

2.— Ebazpen honen xede diren laguntzetarako, 2025. urtean 2.975.000 euroko kopurua jarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako dagoen partidaren kontura.

3.— Eskatutako dirulaguntzaren zenbateko osoa kontuan hartuta oinarri honen 2. atalean ezarritako zenbateko osoa handitu ahal izango da % 50era arte. Adierazitako aldaketa HABEko zuzendariaren ebazpen baten bidez onartu eta EHAA-n argitaratu beharko da.

2. oinarria.— Onuradun izateko baldintzak.

1.— Ebazpen honetan arautzen diren laguntzen onuradun izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira, deialdi honetako txanda bakoitzean ezarritako eskari-epea amaitzen den egunean, betiere Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotakoaren arabera:

a) Matrikulatua egotea.

HABEren erregistroan inskribatutako euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu bateko ikastaroren batean matrikulatua egotea 2024ko ekainaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitarteko epealdian eta dagozkion matrikula-prezioak euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuei ordaindu izana.

b) Maila gainditu edo maila egiaztatzea

HABEren komunikagaitasun-maila euskaltegiko edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako ebaluazioan gainditu izana edo HABEren edo Hizkuntza Eskola Ofizialen (HEO) egiaztatze-deialdietan egiaztatu izana edo gainditutako maila zein egiaztagiri horien baliokidea den titulua edo ziurtagiria lortu izana, jarraian zerrendatutako prozeduraren baten bitartez:

1) A1 edota A2 mailak egiaztagiri bitartez: HABEren edo Hizkuntza Eskola Ofizialen egiaztatze-deialdietan A1 edota A2 mailak egiaztatu egin behar dira 2024ko uztailaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitarteko ebaluazio-garaian.

2) 2.1. B1 edota B2 mailak ebaluazio bitartez: HABEren B1 eta B2 komunikagaitasun-mailako atalasearen ebaluazioa, euskaltegian edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu batean gainditu egin behar da.

2.2.— Gainera, dirulaguntzaren onuradun izateko, oinarri honetako beste baldintzak betetzeaz gain, ondorengo baldintzak ere bete beharko dira:

I.— Oro har, gutxienez 50 ikastordu hartuak eduki beharko dira eta udako ikastaroetan 30 ordu.

II.— Asistentziari dagokionez, honako bertaratzea izan beharko da matrikulatuta izan den ikastaroan: aurrez aurreko ikastereduan, gutxienez, euskaltegiak emandako ikastorduen % 75 hartuak izan beharko dira; eta autoikaskuntza ikastereduan, ordu teorikoen % 75 betetzeaz gain, mintza-saioetan izandako asistentzia ordukin, gutxienez ikastaroaren ordu teoriko guztien % 7,5era iritsi beharko du.

a) Oro har, asistentzia hori bete den neurtzeko, izena ematen den egunetik ikastaroa amaitu arteko ordu guztiak hartuko dira kontuan. Dena den, ikastaroa jarraitzea ezinez-

koa egiten duen egoeraren bat (lan berri batekin bateraezintasuna, osasun-arrazoiak...) gertatuz gero eta behar bezala zurituz gero, baja izan arteko orduak hartuko dira aintzat asistentzia-kalkuluak egiteko.

b) Ikaslea dagoeneko hasita dagoen ikastaro batean matrikulatu bada, ikasleak ikastaroa hasi duen egunetik ikastaroa bukatzen den arte emandako orduak hartuko zaizkio aintzat asistentzia kalkulatzeko.

III.– Gaitasun-mailaren aurrerapenari dagokionez:

– B1 mailaren dirulaguntzaren onuradun izateko: ikastaroaren hasieran, gehienez, B1A2 abiapuntua izan beharko da, eta bukaeran, gutxienez, B1B1 lorpen-maila.

– B2 mailaren dirulaguntzaren onuradun izateko: ikastaroaren hasieran, gehienez, B2B1 abiapuntua izan beharko da, eta bukaeran, gutxienez, B2B2 lorpen-maila.

IV.– Euskaltegiak adierazpen bat luzatuko du baldintza hauek bete direla azalduz.

2.3.– B1 eta B2 mailak euskaltegian ebaluazio bitartez gainditzeagatik dirulaguntza jasoz gero, ondoren HABEko egiaztagiria edo baliokidea den ziurtagiria lortzeko egiten diren maila bereko ikastaroak ez dira diruz lagunduko.

3) B1, B2, C1 edo C2 mailak egiaztagiri bitartez: HABEko zuzendariaren ebazpenez deitutako 2024. urteko deialdiko bigarren azterketaldian, edo 2025. urteko deialdiko lehen azterketaldian eskuratu behar dira egiaztagiriok. Salbuespen gisa onartuko dira 2023-2024ko ikastaroa ekainaren 1a baino lehenago amaitu eta 2024. urteko bigarren azterketaldian egiaztatu duten ikasleen eskaerak.

4) B1, B2, C1 eta C2 mailak baliokidea den ziurtagiri edota titulu baten bitartez: 2024ko irailaren 1etik 2025eko urriaren 31ra bitartean eskuratu behar da HABEren egiaztagiriaren baliokidea den ziurtagiri edo titulua, betiere baliokidetzari buruzko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak araututakoaren arabera eta deialdi bakoitzaren eragin datari jarraikiz.

5) Desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, baldin eta desgaitasunaren balorazioan eta diagnostikoan eskumena duen organoak emandako txostenaren arabera ezin bazaie ebaluatu gaitasun-maila jakin bat, dela idazmenean eta irakurmenean, dela mintzamenean eta entzumenen, ez dituzte egiaztatu beharko ebaluatu ezin zaizkien adierazpen- eta ulermen-trebetasun horiek.

c) Administrazio- edo zigor-zehapenik jaso ez izana, sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edota emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, betiere martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza-dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak).

d) Dirulaguntza Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako egoeretan ez egotea. Bereziki, zerga zein gizarte-segurantza arloko betebeharrak egunean eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

2.– Dirulaguntzen deialdi honetatik at geldituko dira:

a) Herri Administrazioak finantzatuta eskolatu diren ikasleak.

b) Deialdi honetako epealdiak baino lehen dagoeneko maila egiaztatuta duten ikasleak, dagokion egiaztagiriaren edo tituluaren bitartez.

c) Deialdi honetako epealdian ikasleari ezarri zaion abiapuntu-mailarik baxuena baino beheragokoa den mailaren bat gainditu edota egiaztatu duten ikasleak.

d) Eskola-materialaren gastua eta barnetegietako pentsio-gastuak ez dira diruz lagungarriak izango.

3. oinarria.– Eskariak aurkeztea.

1.– Eskabidea egiteko, derrigorrez, Eusko Jaurlaritzako Egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eskaera-formularioa bete beharko da:

– Lehen txanda: <https://euskadi.eus/zerbitzuak/1038710>

– Bigarren txanda: <https://euskadi.eus/zerbitzuak/1038711>

Eskaera-formularioarekin batera aurkeztu behar dira egindako ikastaroen matrikulen ordainketa-agiriak.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren Aginduaren 8. artikuluekin bat etorriz, Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen Erantzukizunpeko Adierazpena.

Deialdi honen 3. oinarriak ezarritako gainerako baldintzen egiaztapena ofizioz egingo du HABEk elkarreragintasun-sistemak baliatuz. Eskari-egileak konprobazio horri aurka egin nahi badio, berariaz adierazi beharko du eskaera-orrian, eta horrekin batera, dagozkion dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

2.– Eskaera-formularioa eta berarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko bi modu daude:

a) Bide telematikoa: eskabidea bide elektronikoan helbide honetan egingo da «Nire karpeta»-ren bitartez: <https://euskadi.eus/nirekarpeta>.

b) Aurrez aurrekoa: eskaria ordenagailuan bete, inprimatu eta sinatu ondoren aurrez aurre aurkeztu beharko da HABEren bulegoetan, Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan EAEko erregistro osagarrietan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoaren erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 727/2008 Dekretuan jasotakoetan) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren azaroaren 26ko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan.

Bide telematikoa edo aurrez aurrekoa erabiltzeak, bai eskabideak aurkeztean, bai dokumentazioa aurkeztean, ez du behartzen prozedurako hurrengo izapideetan bide bera erabiltzera.

3.– Elektronikoki aurkeztutako dokumentuek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Pdf formatuan aurkeztuko dira.

b) Bakoitzaren gehieneko tamaina 30 Mb-koa izango da.

4.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

4. oinarria.— Eskariak aurkezteko txandak, eskari-epeak eta ebaluazio-garaiak.

Bi txanda izango dira 2025. urtean eskariak egin ahal izateko.

Gainditutako edo egiaztatutako maila bakoitzeko eskari bakarra onartuko da, deialdi honetako bigarren oinarriaren 1.b) atalean ezarritako prozeduraren bati jarraikiz.

Ikasleak maila berberagatik eskari bat baino gehiago eginez gero, aztertu egingo dira eskariak osagarriak diren ikusteko. Kontrajarriak diren datuak edukiz gero, denboran azkena izan den eskaria hartuko da aintzat.

Ikasle berberak gainditutako edo egiaztatutako maila ezberdinengatik, eskari ezberdinak egin ditzake txanda ezberdinetan.

4.1.— Lehen txanda.

Lehen txanda honetan, dirulaguntza eskaria egiteko epea ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da eta abuztuaren 4an amaituko da.

Eskaria egin ahal izango dute lehen txanda honetan 2024ko uztailaren 1etik 2025eko uztailaren 31 bitartean maila gainditu edota maila egiaztatu duten ikasleek. Betiere, 2. oinarrian jasotako baldintzak betez gero.

4.2.— Bigarren txanda.

Bigarren txanda honetan, dirulaguntza eskaria egiteko epea 2025eko irailaren 1ean irekiko da eta azaroaren 3an amaituko da.

Eskaria egin ahal izango dute bigarren txanda honetan 2025eko abuztuaren 1etik urriaren 31ra bitartean maila gainditu edota maila egiaztatu duten ikasleek, betiere, 2. oinarrian jasotako baldintzak betez gero.

Gainera, lehen txandan eskaria egiterik izan ez duten pertsonak aukera izango dute dirulaguntza-eskaria egiteko, betiere 2024ko uztailaren 1etik 2025eko uztailaren 31ra bitartean gainditu edota egiaztatu badute maila.

5. oinarria.— Aurkeztutako eskariaren akatsak eta hutsuneak zuzentzea.

Eskariak akatsak edota hutsuneak baditu, edo eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumenturen bat falta bada, hamar laneguneko epea emango da hauek zuzentzeko. Eta horrela egin ezean, eskabideari uko egin zaiola ulertuko da, aldez aurretik emandako ebazpenaren bidez.

6. oinarria.— Dirulaguntzen organo kudeatzailea.

HABEko Kudeaketa Zerbitzuko Ekonomia eta Administrazio Unitateari eta Ikuskatzailetzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzea.

7. oinarria.— Dirulaguntza esleitzeko eta neurtzeko irizpideak.

1.— Dirulaguntzen esleipen-prozedura ez da lehia-printzipioaren arabera izapidetuko, baizik eta esleipen jarraituaren arabera. Hau da, oinarri hauetako betekizunak zein baldintzak betetzen dituzten eskabide-egile guztiek jasoko dituzte dirulaguntzak, aurrekontu-partidako zenbatekoa agortu arte.

2.— Gainditu edo egiaztatu den maila bakoitzeko, ikasleak 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetan matrikuletan ordaindutako kopurua eskura dezake, gehieneko muga hauekin gainditu edo egiaztatutako maila bakoitzeko:

– HABEren A1 maila: 600 euro.

- HABEren A2 maila: 800 euro.
- HABEren B1 maila edo baliokidea: 900 euro.
- HABEren B2 maila edo baliokidea: 1.000 euro.
- HABEren C1 maila edo baliokidea, 1995ean edo ondoren jaio diren ikasleentzat: 700 euro.
- HABEren C1 maila edo baliokidea, 1994an edo aurretik jaio diren ikasleentzat: 150 euro.
- HABEren C2 maila edo baliokidea: 100 euro.

Muga horiei dagokienez, ikasleak maila bat baino gehiago lortzeagatik dirulaguntza eskatzen badu, gehieneko dirulaguntza izango da 7. oinarriko 1. atal honetako mailei dagokien batura.

Halaber, eskabide guztien zenbatekoak deialdiaren 1. oinarriaren baitan ezarritako aurrekontua gaindituko balu, ebazpen-organoak aipatu aurrekontua hainbanatuko du onuradun izateko eskakizunak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean.

3.– Dirulaguntza kontzeptupean jasotako diruzko zenbateko hauek salbuetsita egongo dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, aplikagarri zaion araudian ezartzen den eran.

4.– Gainditu edo egiaztatu den maila bakoitza behin bakarrik lagunduko da diruz, ikaslearen ibilbide osoan zehar. Era berean, maila bat gainditu edo egiaztatu ondorengo dirulaguntza zuritzeko beharrezkoa izan den matrikularen zenbatekoa ez da konputatuko beste maila bat egiaztatu izanagatikoa laguntza zuritzeko.

8. oinarria.– Ebazpena, ebazpena emateko epea, jakinarazpena eta dirulaguntzaren ordainketa gauzatzea.

Deialdi honetan zehaztutako irizpideak aplikatu ondoren, HABEko zuzendariak dirulaguntza-eskariak ebatziko ditu eta ebazpenak emango ditu ondoren zehaztutako epeetan:

Lehen txandan barneratutako eskariei buruz 2025eko irailaren 30a baino lehen ebatziko dira.

Bigarren txandan barneratutako eskariei buruz 2025eko abenduaren 12a baino lehen ebatziko dira.

Ebazpenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikokoaren iragarki-taula elektronikoa argitaratuko dira (<https://euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>).

Gainera, interesdunei «Nire Karpeta»-ren bidez, jakinaraziko zaizkie.

Era berean, emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, aipatutako ebazpenak HABEren web orrialdean argitaratuko dira Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikokoaren iragarki-taulan argitara ematen diren egun berean.

Eskabideen gainean emandako ebazpenak bide administratiboa agortuko du. Horren aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsioa aurkez dezakete HABEko zuzendariaren aurrean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Ebazpenaren jakinarazpena aurreikusitako epe-mugan jasotzen ez bada, onuradunek ulertu ahal izango dute beren eskabidea ezetsia izan dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik.

9. oinarria.– Dirulaguntzen bateragarritasuna eta gainfinantzaketaren debekua.

Emango den dirulaguntza bateragarria izango da xede berarekin jaso daitekeen beste edozein nekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horri jarraiki, onuradunek aipatu gainfinantzaketa ez izateko konpromisoa hartu beharko dute euren gain.

HABEk eskubidea izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin eratzeko, betiere deialdi honen xede den gaiari atxikita.

Dirulaguntza deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar, ikasle den eskari-egileak berariaz ontzat eman dituela oinarri hauek eta baimena ematen diola batetik, HABEri, gainfinantzaketa hori egon den ziurtatzeko beharrezko den informazioa eska diezaiei gainerako administrazio publikoetara, eta bestetik, azken horiei, informazioa HABEri emateko ere.

10. oinarria.— Onuradunen betebeharrak.

1.— Onuradunek, oro har, Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. eta 46. artikuluetan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan jasotakoak bete beharko dituzte.

2.— Eta zehazki, ebazpen honetan araututako dirulaguntzen onuradunak beti izango ditu honako betebeharrak hauek:

a) Laguntza eman duen erakundeak egingo dituen egiaztatzeen menpe eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutuko duen ikuskaritzaren menpe egon beharko du, deialdi honen bitartez eskuratu diren dirulaguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien menpe ere egon beharko du.

b) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzarik eskuratuz gero, horren berri eman beharko dio HABEri.

c) Laguntza ematerakoan kontuan izandako dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin bada, horren berri eman beharko dio HABEri.

d) Dirulaguntza honen kudeaketan eta fiskalizazioan eskumena duten organoek eskatzen dieten informazio guztia ematea. Zehazki, informazioa eman beharko dio HABEri, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta finantzaketaren ikuskaritza egiteko eskumena duten beste edozein kontrol-organo publikori, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 9.4 n) artikuluan ezarritakoaren arabera.

e) Horretaz gain, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak ezarritako betebeharrak eta gaiari ezar dakizkiokeen gainerako xedapenek ezarritako betebeharrak ere izango ditu.

11. oinarria.— Baldintzak aldatzea, arauak ez betetzea eta itzulketak.

Ebazpena eman ondoren, onuradunak beste administrazio publiko edo erakunde pribatu baten aldetik helburu bererako beste dirulaguntzaren bat jasotzen badu, horren berri eman beharko dio HABEri. Egoera horrek dirulaguntza onartzen duen ebazpena aldatzea ekar dezake, betiere 9. oinarrian ezarritako gainfinantzaketaren debekua betetzeko.

Zentzu horretan, HABEk egiaztapenak egingo ditu, eta, hala badagokio, dagokion zenbatekoa itzultzeko eskatuko du, gainfinantzaketarik gertatu ez dela bermatzeko.

Edozein kasutan ere, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, onuradunak jasotako zenbatekoa osorik edo partzialki itzuli beharko du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 37. artikuluan eta aplikagarri den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

Itzulketa-prozedura administrazio-prozedura arruntaren bidez izapidetuko da, interesdunari entzunaldia eskainiz eta dagokion ebazpena emanez.

12. oinarria.— Datuen tratamendua.

Deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2016/679 (UE) Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak araututakoaren arabera tratatuko dira, «Ikasleen dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueretan, ondoren zehazten den helbururako:

– Deialdi honetan aurreikusitako prozeduren kudeaketa.

HABEko zuzendaria izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da legez ezarritako betebeharrak gauzatzeko.

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Halaber, onuradunek bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezakete helbide honetan:

<https://habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa>

ERANSKINA

2024-2025 IKASTURTEAN HABEREN EUSKARA-MAILAK EDO BALIOKIDEAK GAINDITU
DITUZTEN IKASLEENTZAKO DIRULAGUNTZAK.
EGOITZA ELEKTRONIKOAN ESKURAGARRI DAGOEN FORMULARIOA.
(KODEAK: 1038710 – 1. TXANDA; 1038711 – 2. TXANDA-)

Instrukzio-organo hartzailea:

HABE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Eskatzailearen datuak

Eskatzailea: _____

1. Pertsona interesdun gisa ari naiz espedientean
2. Ordez kari gisa ari naiz

* Identifikazio-dokumentua: _____ * Zenbakia: _____

* Izena _____

* Lehen abizena: _____ * Bigarren abizena: _____

* Sexua: _____

* Errol da herria: _____ * Herrialdea: _____

Jakinarazpen eta komunikazioak hona bidaliko dira:

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio _____

Komunikazio-hizkuntza

Mezu elektronik o eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

Euskara Gaztelania

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

* Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko kanala aukera dezakezu:

1. Elektronikoa: «Nire Karpeta» guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dizkizugu. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa duzu.
2. Postala: Atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dizkizugu.

Kanal elektronik oaren gaineko oharra: Jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitzat emango da «Nire Karpeta»-n eskuragarri jartzen denetik 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat joko da, eta HABEk aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak

«Nire Karpeta»-n jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzerakoan abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

* Posta elektronikoa _____

* Telefono mugikorra _____

Datuak erabiltzeko baimena

1. Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut.

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabili egingo dira eta ikasleentzako dirulaguntzak izeneko tratamendu-jarduerari erantsiko zaizkio.

- **Arduraduna:** HABE
- **Helburua:** Dirulaguntza hauekin lotutako prozedurak izapidetzea, ebaztea, jarraipena egitea eta kontrolatzea, errekursoak, ondare erantzukizunak, ofizioz berrikusteko eskaerak, errebokazioak, hutsen zuzenketak eta administrazio bidean egiten diren beste inpugnazio batzuk.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da, lege ezarritako betebeharrak gauzatzeko eta interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko, tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
 - Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeako 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Dirulaguntzen Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea).
- **Hartzaileak:**
 - Foru Aldundiak
 - Organo judizialak
 - Toki administrazioko beste organo batzuk
 - Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk.
 - Kontuen epaitegia edo erkidegoetako baliokidea.
 - Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Kontrolerako Bulegoa, kasuan kasuko eskumena duen foru aldundia edo/eta udala, Kontuen Epaitegia eta organo judizialak.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua.

Araudia:

– Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Ikaslearekin harremanetan jartzeko datuak

* Lurralde Historikoa _____ * Udalerria _____

* Helbidea _____ * Posta kodea _____

* Helbide elektronikoa _____

Harremanetarako telefonoak:

* Telefono-zenbakia _____ * Telefono mugikorra _____

Bankuaren datuak

Identifikazio-zenbakia: _____

Kontu korrante zenbakiaren titularra (ikaslearena, edo bera ordezkatzeko duen pertsona fisikoarena)

* IBAN kodea: _____

Datu fiskalak zein lurraldetan dauden

* Lurraldea: _____

«X» jarri gaitutako edota egiaztatutako mailan:**A MAILA**

Egiaztatutako maila	
A1	☐
A2	☐

* A1 edo A2 maila HEO-ean lortzen baduzu, agiria atxikitu behar duzu.

B MAILA

B1 maila. Adierazi zein maila gaitutako edota egiaztatutako duzun.	
Euskaltegia gaituta (*)	☐
HABEko B1 maila	☐
HABEko B1 mailaren baliokidea den ziurtagiria	☐

B2 maila. Adierazi zein maila gaitu edota egiaztatu duzun.	
Euskaltegian gaituta (*)	☐
HABE B2 maila	☐
HABEko B2 mailaren baliokidea den ziurtagiria	☐

* Oharra: B1 eta B2 mailak euskaltegian ebaluazio bitartez gaitzeagatik dirulaguntza jasoz gero, ondoren HABEko egiaztagiria edo baliokidea den ziurtagiria lortzeko egiten diren maila bereko ikastaroak ez dira diruz lagunduko (2. oinarria, 1., b), 2.3).

C MAILA

Egiaztatutako maila	
C1	☐
C2	☐

Ordainagiriak

* Adierazten dut honako diru-kopuruak ordaindu ditudala matrikula gisa.

2024-2025

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eurotan): _____

2024-2025

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eurotan): _____

2024-2025

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eurotan): _____

2023-2024

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eurotan): _____

2023-2024

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eurotan.): _____

2023-2024

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eurotan): _____

* Hemen adierazitako zenbatekoen ordainagiriak «Matrikula ordainagiriak» eranskinean atxikiko ditut.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**NIRE ARDURAPEAN ZERA AITORTZEN DUT:****– Zerga arloko eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak egunean ditut.**

*Jakinarazten dizugu 2023ko otsailaren 13ko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren Aginduaren 8. Artikuluko 2, 3 eta 4. apartatuekin bat etorriz, HABEk adierazpen horren egiazkotasuna egiaztatu ahal izango duela EAEko foru-ogasunek eskainitako zerbitzu elkarreragingarrien bidez.

HABEk ofizioz kontsulta hori egitearekin ados ez bazaude, zuk zeuk aurkeztu beharko duzu aipatu egiaztatze-egintzen baitan errekeritzen zaizun dokumentazioa.

Bateragarritasun-adierazpenak:

– Adierazten dut eskatzen d(it)udan maila(k) ikasteagatik ez dudala beste dirulaguntzarik jaso aurren, ezta joan den urtean ere. Horri lotuta, HABEri jakinaraziko diot:

- Euskara ikasi izanagatik dirulaguntza eskatzen badiot udalari edota udalez gaindiko beste administrazio publikoei edo erakunde pribatuei.
- Era berean, dirulaguntza jasotzen badut administrazio publiko edota enpresa batetik.

– Administrazio publiko edo erakunde pribatu honek honako dirulaguntza hau eman dit ondorengo urtean eta kopuruan:

(HABEk emandako dirulaguntzak ez dira adierazi behar; HABEk ofizioz hartuko ditu kontuan).

2025

Erakundea: _____ . Zenbatekoa (eurotan): _____

Erakundea: _____ . Zenbatekoa (eurotan): _____

2024

Erakundea: _____ . Zenbatekoa (eurotan): _____

Erakundea: _____ . Zenbatekoa (eurotan): _____

Zehapen-adierazpenak

– Ez dut dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten didan zehapen administratiborik edo zehapen penalik.

– Ez dut dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten didan zehapen administratiborik edo zehapen penalik, sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edota emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

– Ez dut dirulaguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik (sexu-bereizkeriagatik debekuak barne).

– Itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta ditut.

Adierazpen orokorrak:**Legezko debekuren bat ez izatearen erantzukizunpeko adierazpenak**

XXXXXXXXXXk, [nire izenean]/[ordezkatzen dudan entitatearen izenean],

nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DUT dirulaguntzen onuradun izateko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 13. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen ditudala eta ez nagoela hemen zerrendatzen diren legezko debekuen egoera batean ere:

- Dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik gabe utzita epai irmo baten bidez zigortutakoa izatea edo prebarikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe eralgitzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik epai irmo baten bidez zigortutakoa.
- Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jotakoa izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklarututakoa izatea —konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu—, epailearen esku-hartzearen mende egotea edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe dagoelarik.
- Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko bidea ematea eta horren errudun deklarututakoa izatea.
- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko baten ordezkari direnak egoera hauetakoren batean egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bataerazintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean egotea arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.
- Zerga-egoitza zerga-paradisutzat hartutako herrialde edo lurralde batean izatea.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ezarritako ordainketak eginda ez izatea Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan zehaztutako eran (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).
- Dirulaguntzak lortzeko aukera galduta izatea zehapen irmo baten bidez horrelakorik ezartzen duen edozein legeren arabera. Zehazki, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso izana, zehapenean ezarritako epea oraindik gainditu ez bada.
- Ordezkatutako elkarte Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuren bati lotutako auzietan sartuta egotea.
- LGTBfobia erakutsi, bultzatu edo sustatzea, barnean dela bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).
- Zigortuta egotea apirilaren 8ko 7/2022 Legeak (Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeari buruzkoa) aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik,

administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez, harik eta neurri zuzentzaile egokiak bete eta zehapena ordaindu arte.

- Desgaitasuna duten pertsonen alde lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota ez betetzea, edo hori betetzeko ordezkio neurriak abian jarri izana ez egiaztatzea.
- Fundazioen kasuan, estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean xedatutakora ez egokitzea eta egokitzapen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan gordailututa ez egotea (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 1. xedapen iragankorra).
- Enpresaren deslokalizazio-deklaraziorik jaso ez izana Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 51. artikuluan ezarritako ondorioekin.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ez betetzea lege ezarritako moduan. (2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6 eta 8. artikuluen kasuetan; 2023ko otsailaren 13ko Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).
- Eskatutako laguntza jarduera berberetarako jada onartuta edo ordainduta dauden beste dirulaguntza batzuekin bateragarria izan arren, gainfinantzaketa gertatzea. Etorkizunean xede berbererako jasotzen diren bestelako laguntzen berri emateko betebeharra dago laguntza likidatu arteko aldiari. (Deialdiaren arabera laguntza beste laguntza batzuekin bateragarria den kasuetarako da).

Indarrean dagoen legedian ezarritako baldintzak betetzen ditut.

Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokidan erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Ezingo da dirulaguntza eskubideaz baliatu, baldin eta Administrazioak hurrengo egitateren baten berri izan badu:

- Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada.
- Administrazio eskudunari ez bazaio aurkeztu erantzukizunpeko adierazpena.
- Administrazio eskudunari ez bazaio aurkeztu adierazten dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa.

Aurrekoaz gain, gerta liteke erantzukizun penal, zibil edo administratiboak izatea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Konpromiso-adierazpena

- Konpromisoa hartzen dut jasotzen dudan dirulaguntzak ez duela gaindituko euskara ikasteko jardueraren benetako kostua.
- Era berean, eskaera hau egin ondoren, xede eta helburu berarekin beste administrazio publiko edo erakunde pribaturen batek dirulaguntzaren bat ematen badit, horren berri emateko konpromisoa hartzen dut.
- Ulertzen dut HABEk, jasotako informazioa aztertuta, dagokion doikuntza edo itzulketa egin ahal izango duela, gainfinantzaketarik ez dela bermatzeko.

Beste erakunde publikoek ikasleei bideratutako dirulaguntzaren onarpena

– Baimena ematen dut nire datuak erabil daitezen Gipuzkoako Foru Aldundiak edo beste udal erakunde publiko batek deitutako dirulaguntzak izapidetzeko. Baimen hau nik egin dut era zehatzaz, aldezturik jakinaren gainean egonda; zalantzarik gabea eta epe-mugarik gabekoa da eta erantzukizunpeko adierazpen honen bitartez ematen dut. Era berean, honen bitartez adierazten da, aipatutako araudian aurreikusitakoa sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahal izango direla HABEren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean (Vitoria-Gasteiz kalea 3, 20018 Donostia).

Ofizioz egiaztatzea

HABEk ofizioz egiaztatutako ditu elkarreragingarritasun-sistemen bidez, ondorengo taulan agertzen diren datuak dagokion Administrazio eskudunean.

39/2015 Legearen 28. artikuluekin bat etorritik, HABEk datu horiek guztiak edo horietakoren bat ofizioz egiaztatzeari aurka egin nahi badiozu, berariaz adierazi beharko duzu. Horretarako, "Aurka nago" izeneko zutabea gaitu da eta konprobatzea nahi ez duzun datuaren parean dagoen laukian arrastoa egin behar duzu. Arrastorik egiten ez baduzu, HABEk datu hori konprobatzearekin ados zaudela ulertuko du.

	Aurka nago
Zein udalerritan dagoen erroldatuta (Estatistika Institutu Nazionala-EIN).	
Zerga-betebeharren ordainketa egunean izateari buruzko datuak, EAEko Foru Aldundietan eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzian.	
Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko datuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian (GSDN).	
Euskararen ezagutza-mailaren datuak, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB).	

* Oharra: Datu hau ofizioz egiaztatzearen aurka bazaude, Errolda, Euskararen ezagutza-mailari buruzko dokumentuak, eta Zerga zein Gizarte Segurantzaren arloko dokumentuak aurkeztu beharko dituzu eskaera-orri edota formularioarekin batera.